

HITZ BITAN

SASKIBALOIA. Hiru denboraldirako sinatu du

Dejan Tomasevic pibot jugoslaviarra fitxatu du Tauk

Erredakzioa | **GASTEIZ**

Datozen hiru denboraldietan Tau Baskoniako jokalaria izango da Dejan Tomasevic pibot jugoslaviarra, Gasteizko taldeak atzo jakinarazi zuenez. Belgraden jaiotako jokalaria 28 urte ditu, eta 2,08 metro.

Joan den denboraldian beza-la —orduan Victor Alexander estatubatuarra fitxatu zuten—, Dusko Ivanovicek taldeko jokoa indartzeko pibot bat nahi zuen, eta Tomasevic zuen aspaldian begiz jota. Negoziaketak ez dira errazak izan, eta lan asko egin behar izan du Baskoniako talde teknikoak, baina lortu dute azkenean entrenatzaileak nahi zuena.

Maila handiko pibota da Tomasevic: 16 puntuko eta 8 erreboteko batez bestekoa lortu du Jugoslaviako Ligako azken denboraldian, eta Buducnost bere taldea izan da Ligako txapeladuna. Hala ere, batik bat joan den EuroLigan eman du bere burua ezagutzera. Txapelketa osoko jokalaria baliotsuena izan zen, bigarren saskiratzailerik onena

(23,1 puntu), eta erreboteatzaile nagusia (11,8 errebote). Tanjevic bere orain arteko entrenatzaileak estu hartu zuen Europako lehiaketa horretan, eta duen onena emanarazi zion.

Ez da inoiz Jugoslaviatik kanpora aritu

Dejan Tomasevicek urrats garrantzitsua egin du Taurekin fitxatuz. Orain arte, Jugoslavian baino ez du jokatu, eta aurtengo izango da bere herrialdetik kanpora jokatu duen aurreneko denboraldia. Profesionaletan, 1990-91 denboraldian hasi zen jokatzeko, Borac Cacak taldean. Han egindako lan onari esker, Belgradoko Izar Gorriak fitxatu zuen, eta bertan jokatu zuen 1995a arte. Belgrado bertako Partizanek fitxatu zuen hurrena, eta Buducnost egin du azken denboraldia. Palmarek aparte du bere selekzioarekin. Besteak beste, urrezko domina 1995eko eta 1997ko Europako Txapelketan, eta 1999ko Mundialean. Zilarra Atlantako Olinpiar Jokoetan, eta brontzea 1999ko Europako Txapelketan.

TENISA. 41 minututan kanporatu zuen Cincinnatiako final-zortzirenetatik



MIKE SIMONS / EPA

Kuertenek astindua eman zion Ivanisevici

Hasi eta bukatu ia aldi berean egin zen atzo Gustavo Kuertenek eta Goran Ivanisevicek Cincinnatiako Torneoan jokatuako partidua. 41 minutu nahikoak izan zituen brasildarrak Ivanisevici astindu galanta emateko (6-2 eta 6-2). Ez zuen kroaziarrak horrelakorik asko espero. Wimbledongo Torneoan nagusitu zenez geroztik jokatu

partidu guztiak irabazita zituen Ivanisevicek, baina atzo Kuertenek kontra ez zuen inolako aukerarik izan. Gustavo Kuertenek, final-laurdenetan, Ievgeni Kafelnikov errusiarraren kontra jokatu beharko du. Rafter-Rudeski, Hewitt-Ljubcic eta Gambill-Henman dira final-laurdenetako beste norgehiagokak.

ESANAK

RICHARD WITSCHGE

(Alaveseko jokalaria)

«Aukera berri bat ikusten dut Gasteizen. Ajaxeko entrenatzailearekin ez dut sekula gehiago lanik egin nahi»

DIMITIRI KHOKHLOV

(Realeko jokalaria)

«Iaz baino gol gehiago sartu behar ditut, baina denboraldia hasi aurretik ezer esateak ez du zentzurik»

BODO ILLGNER

(Real Madrilko atezain ohia)

«Behin betiko erretiroa hartzera noa. Ez dut gehiago jokatu. Negozio honetatik erretiroa hartuko dut»

ARRAUNKETA

Zortzi ontzi arituko dira gaur Portugaleteko Banderan

Ibaizabalen jokatu da gaur B Mailako Portugaleteko Banderan (19:30). Zortzi ontzi ariko dira: Portugalete, Kaiku, Lutxana, Zierbena, Elantxobe-Arkote, Algorta-Mundaka, Ondarroa eta Santiagotarrak. Irabazleak Elantxobe-Arkote, Ondarroa eta Santiagotarrak ontzien arteko norgehiagokatik irten behar luke. Beste behin, kaleen zozketa, erabakigarria izango da.

HARRI-JASOTZEA

Hodei Iruretagoienak marka ezarri du 138 kiloko kuboarekin, 5 minutuan 5 jasoaldi eginda

15 urterekin (16 egingo ditu hilaren 31n), marka berria ezarri zuen atzo Hodei Iruretagoienak 138 kiloko kuboarekin, Aian (Gipuzkoa). 5 minutuan 5 jasoaldi egin zizkion: bat minutuko. Aiako txapelketa, bestalde, Jose Ramon Iruretagoiena *Izeta II.a*-k (Hodeien aitak) irabazi zuen, Jexux Mari anaiaren eta Elosukorta eta Urperen aurretik. 113 kiloko Aiako Harriarekin eta 116 kiloko Orzaikarekin aritu ziren. 44 jasoaldi lortu zituen irabazleak, 17 Aiakoarekin eta 27 Orzaikarekin.

HERRI KIROLAK

Nafarroako Herriz Herri proba konbinatuen bigarren jardunaldia bihar, Donezteben

Abuztuaren 4an hasi zen Nafarroako Herriz Herri Txapelketa, eta bihar, bigarren jardunaldia jokatu dute, Doneztebeko plazan (12:30). Lau jardunaldiko ligaxka jokatu dute lehenik, eta finala, irailaren 23an, Elizondon; aurreneko hiru taldeak sartuko dira finalera. Biher, Berriozar, Arraiotz eta Etxauri ariko dira lehian, eta Utergak atsedena izango du. Lehen saioa lokotx-biltze, zaku lasterketa, aizkora, korrika eta arpana probek osatzen dute, eta bigarrena, ingude altxatzeak, harri-jasotzeak eta txinga eroateak. Lehen jardunaldian, Berriozar eta Arraiotz gailendu ziren.

herri bat gara
MANIFESTALDIA
GOUR DONOSTIA
17:30etan Bulebarrean
INDEPENDENTZIA SOZIALISMOA